

2016ko ABENDUAren 26ko KANBOKo HERRIKO KONTSEILUAren BILKURA

2016ko abenduaren 26an, astelehenarekin, arratseko zazpitan, Herriko Etxean, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, Herriko kontseilua bildu da.

Hor zirenak : Vincent Bru jauna, auzapeza, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Jean-Jacques Lassus jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorriak : Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, axuantak, Yolande Huguenard anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Camille Jenvrin jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak : Eliane Noblia andereak Vincent Bru jaunari, Frédéric Bardin jaunak Pascale Lespade andereari, Yolande Huguenard andereak Véronique Larronde andereari, Argitxu Hirigoyen andereak Vincent Goytino jaunari, Jean-Noël Magis jaunak Christian Devèze jaunari, Camille Jenvrin jaunak Bernadette Jougleux andereari.

Bilkura hau 2016 urteko azkena izanen dela adieraziz, saioari hastapena ematen dio Auzapez jaunak. Arrats honetan, Herriko kontseilua deitzera behartua izan da. Izan ere, 2016ko abenduaren 31 aitzin, gai zerrendako bi aipagai tratatu behar dira.

1 – Bilkurako idazkariaren izendapena.

Véronique Larronde anderea **aho batez** bilkurako idazkari bezala izendatua da.

2 – Aitzineko bilkurako bildumaren onarpena.

2016ko abenduaren 5eko bilkuraren bildumari buruzko ohar berezirik ba ote den galdetzen die Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei.

Nehorrek ez duenez ohar berririk gehitzeko, aitzineko bilkurako bilduma gehiengoan onartua da.

Goytino jaunak hitza hartzen du. Ibilgailu elektrikoen karga-guneen finkatzeko aipagaia aurkeztu zuelarik, huts bat egin zuela erraten du. Izan ere, bi ibilgailuren hornitzeko gune bakar bat izanen da. Abenduaren 5eko Herriko kontseiluko bilkuran, baina, bi gune izanen zirela erran zuen.

Xehetasun hori emanik, Goytino jauna eskertzen du Auzapez jaunak.

3 – « Turismoaren sustapena, herriko Turismo Bulegoa » eskumena.

Herriko kontseilu horren antolatzeko bi arrazoiatarik bat dela adierazten du Auzapez jaunak. Izan ere, Herriko kontseiluak turismo eskumenaren mantentzeari buruz deliberatu behar du.

Frantziako legebiltzarrean Euskal mendia lege proiektua aurkeztu ondotik, 2016ko urriaren 3an, Herriko kontseiluak erabaki bat hartu zuen. 2016ko irailaren 14an, Frantziako ministro kontseiluak etorkizuneko mendi legeari buruzko lege proiektu bat onartu zuela oroitarazten du, eta, arratsaldean bertan, lege proiektua Frantziako legebiltzarrean aurkeztua izan zela gogorarazten du.

NOTRe legearen salbuespen gisa aurkeztua den « Montagne 2 » izeneko lege proiektu horrek, 2016ko abenduaren 31 aitzin hala deliberatzekotan, turismo gisa sailkatuak diren opor lekuetan Herriko Etxeek herriko Turismo Bulegoak atxik eta kudea ditzatela aurreikusten du.

Frantziako legebiltzarrean, urgentziazko bozketa-prozeduran, diputatuen gehiengo zabal batek *Mendiko lurraldeen modernizazio, garapen eta babeste legea* deitzen den lege proiektuaren alde bozkatu zuen. Senatuan, senatariek aho batez alde bozkatu zuten. Legebiltzarrak bozkatu xedapen batzuk aldatu zituen Senatuak. Horregatik, 2016ko abenduaren 19an, astelehenarekin, zazpi diputatu eta 7 senatariz osatutako batzorde misto parekideak testu hau aztertu zuen, hautsi-mautsi bat egin zuen eta testu berri bat adostu zuen. Bi egun berantago, 2016ko abenduaren 21ean, asteazkenarekin, legebiltzarrak eta Senatuak azken testu horren alde bozkatu zuten. Hala, gehiengo zabal batek lege horren alde bozkatu ondoan, kontseilu konstituzionalak ez du berehala edukitzean hartzeko eskubiderik.

Elkargoak, egunean berean, ANET eta ANEM erakundeengandik bi e-mail jaso zituen. Elkargoek, « turismoaren sustapena » eskumenaren nahitaezko esleitzeari egin salbuespen gisa, « turismoaren sustapena » eskumena atxikitzeke erabakia har dezaten aholkatzen dute erakundeek.

Turismo herrien eta lurraldeen elkarrekin Herriko kontseiluko kideei igorritako gogoeta proiektuaren testu zati bat aipatzen du Auzapez jaunak :

« Kanboko herriarentzat turismoaren sustapenaren eta Turismo Bulegoaren kudeatzearen izaera estrategikoa kontuan harturik, Kanboko herria turismoari eta ur onei zuzendua denez, tokiko antolaketa baten beharra duela kontuan harturik, estatuko eta nazioarteko konkurrentzia azkar baten testuinguruan Kanboko lurraldearen balioa agerian emateko ahala behar duela kontuan harturik, « turismoaren sustapena, Turismo Bulegoaren sorkuntza » eskumena Kanboko herrian mantentzeak herriaren interes ekonomikoari eta sozialari erantzuten diola kontuan harturik, antolaketa horrek urteetan metatu eragile pribatuen eta publikoen elkarretaratzeko gaitasunen eta horren ondorioen abantailekin segitzeko aukera kontuan harturik, merkataritza eskaintza eraginkorra atxiki duela eta Frantziako estatuan eta nazioartean bildu duen ospea eta osatu duen marka irudia kontuan harturik; honakoa erabakitzen du :

1. artikulua : 2017ko urtarrilaren 1etik aitzina, Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L-52174-16 artikuluko 2º puntuari egin salbuespenaren bitartez, « turismoaren sustapena, Turismo Bulegoaren sorkuntza » eskumena atxikitzea erabakitzen du.

2. artikulua : Baionako suprefeta andeari erabaki horren berri ematea erabakitzen du.

3. artikulua : Auzapez jaunari erabaki horren aipamen betebeharrei dagokien desmarta guztiak egiteko ardura ematen dio. »

Lurraldearen antolaketaren, baserriko munduaren eta lurralde elkargoen ministroa den Jean-Michel Baylet jaunarengandik jaso duen zirkular bat ere aipatzen du Auzapez jaunak. Salbuespen horren egiteko eta gauzatzeko, Herriko Etxeek obligazio batzuk bete behar dituztela eta 2017ko urtarrilaren 1a aitzin deliberatu behar dutela oroitarazten du zirkularrak. Herriko zerbitzuek suprefeta andeari idatzi diotela gehitzen du. Suprefeturako zerbitzuek zehaztu dutenez, lehen erabakiak ez dira legalitate kontrol baten gaia izan, baina, Parlamentuan legea bozkatua izan denez, orain erabaki baten hartzea hobe dela adierazi du.

2017ko urtarrilaren 1etik aitzina, egonaldi zerga HELEPak jasoko ote duen galdegiten du Hiriart-Urruty andereak.

Legalitate kontrolaren gaia Biscaichipy anderearekin aipatu duela ihardesten dio Auzapez jaunak. Kanboko herriak herriko Turismo Bulegoaren kudeantza atxikitzen duen puntutik, egonaldi zerga ez dela HELEPera eskualdatuko baieztatu dio Biscaichipy andereak. NOTRe legeari egin salbuespen sistema baten parte dela zehazten du. Ontsalaz, egonaldi zerga automatikoki HELEPera eskualdatzen da, salbu herriak herriko Turismo Bulegoa atxikitzen badu.

Departamenduko edo eskualdeko diru laguntzak biltzeko, galdea herriarteko erakunde batek egin behar duela zehazten du Hiriart-Urruty andereak. Kanboko herriarentzat, beraz, nola gertatuko da ?

Herriarteko egitura baldin bada, galdea herriarteko erakundeak egin behar duela ihardesten dio Auzapez jaunak. Hala ez denean, desberdina da. Kanboko herriak Turismo Bulegoaren eraikinean obrak burutu ditu, jadanik. Turismo Bulegoko zuzendariak hala galdeginik, lan ttipi batzuk egin behar dira oraino. Herriko zerbitzuek burutuko dituzte.

« Euskal mendia » lurraldeko turismo bulegoekin loturik, webgune bat eginen dela gehitzen du Irastorza jaunak. Webgune horretan, Turismo Bulegoa duten herri guztiak ordezkatuak dira. Kanboko Turismo Bulegoa herriaren esku gelditzen denez, Kanboko herriak ez duela departamenduaren eta eskualdearen eskutik neholako diru laguntzarik jasoko baieztatzen du.

Gaur arte eskuratu diru laguntzak zenbatekoak izan diren galdegiten Hiriart-Urruty andereak.

Badu urte zenbait Herriko Etxeak ez duela neholako diru laguntzarik jasotzen ihardesten dio Irastorza jaunak.

Kanboko herria bere gisa aritzea domaia dela adierazten du Hiriart-Urruty andereak. Aitzineko astean, Turismo Bulegoei dagokienez, Errobi Herri Elkargoan bozkaturakoa aipatzen du. Errobi Herri Elkargoko herriak elkarretaratuko dira, elkarrekin lan eginen dute eta diru laguntzak jasoko dituzte.

Herri horiek elkarlanean arituko direla baieztatzen dio Irastorza jaunak. Bezero bereziak dituzenez, Kanboko herriak bere eskumena atxikitzen du. Animazioak elkarren artean lantzeko, Herriko Etxeak herriarteko Turismo Bulegoarekin bildu behar du. Kanboko turista bezeroen eta etxebizitza mublaturak guztien datu bilketa herriarteko Turismo Bulegoaren esku utziko da. Kanboko herriak Errobi Herri Elkargoak egin eta ukimen pantailak plantan ezartzeko « zoumez » egitasmoan parte hartu duenez, pantaila horiek erabiliko ditu. Kanboko Herriko Etxeak lurraldearen alde egin eta haren inguruko Turismo Bulegoekin lan egiten segituko du.

Herriko Etxeak etorkizuneko herriarteko Turismo Bulegoarekin hitzarmenak izenpe ditzakela gehitzen du Auzapez jaunak. Gaur egun, momentu iragankor batean gara. Ezpeletako eta Arrangoitzeko bi Turismo Bulegoek bakarra osatu dute. Ezpeletako eta Arrangoitzeko lurraldeko herriarteko Turismo Bulegoa deitu dute. Baina, kudeatzeko aski pisua izanen den Turismo Bulego handiago batean sartuko da, laster. Kanboko herriak Lurrlderako Garapen Kontratuarekin, HELEParen egiturarekin eta Kanboko bezala autonomoak izanen diren Turismo Bulegoekin (Biarritz, Hendaia, Angelu, Bidarte) lan eginen du. Bistan dena, horrek ez du erran nahi Kanbo autarkia osoan biziko denik. Alderantziz, besteekin lan egin behar da, eta, hain segur, besteekin elkarrekin komunikazio planak eta erakusketa nagusiak egin beharko dira. Kanboko herriak besteekin – ipar Euskal Herri barnealdeko herrieekin bereziki – egin nahi duen elkarlanaren lehen adibidea da webgunea.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Gehiengoan onartua. Aurka bozkatu dutenak : Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna.

4 – Herriko bi langile HELEParen eskuko ezartzea.

Uztaritzeko, Kanboko eta Zuraideko igerilekuen eta kirol muntaduren kasua aipatzen duela oroitarazten du Auzapez jaunak. Oraingoan, Errobiko herriarteko egiturak bilakatuak dira. Baina, Euskal Elkargoak igerileku horiek partez ala osoki bere gain hartzea da helburua. Ez balitz horrela gertatuko, hau da, hautuzko eskumen baten kasuan Euskal Elkargoak bere gain hartu ala ez erabakitzeke bi urteko epea duenez, eta, epe horretan, herriarteko interesa duten kirol muntadurak bere gain ez hartzea erabakitzen baldin badu, aipatutako eskumenak Herriko Etxearenak izanen liriateke berriz.

Kanboko herriari dagokionez, eskumenaren eskualdaketak bi langileen lanpostuetan eragin zuzena du. Lehen langileak mantentze teknikoak burutzen ditu. Bigarren langileak garbiketa egiten du eta diru kutzaz arduratzen da. Biek herriko langileak izaten segitzen dute, eta, 2017tik aitzina, Euskal Elkargoaren eskuko ezarriko dira. Kanboko igerilekua noizbait berriz ere Kanboko herriak kudeatu behar balu, biek herriko langile izaten segituko lukete.

Joan den astean, Errobi Herri Elkargoak helburu bertsuko erabakia hartu zuen. Orain, Kanboko Herriko kontseiluak erabaki bat hartu behar du.

Langileak HELEParen eskuko ezartzeko epea zergatik urte bat, sei hilabete eta zazpi eguneko ote den galdegiten du Michelena jaunak.

Herri Elkargoaren galdea dela ihardesten dio Irastorza jaunak. Hala, HELEParen behin betiko erabakiaren igurikatzeko epe aski luzea aurreikusten du Herri Elkargoak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

5 – Kirol muntaduren erabiltzeko hitzarmena.

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak hala galdeginik, erabaki bat hartu behar dela adierazten du Auzapez jaunak. Kanboko herriak kirol muntadura zenbait Errobi kolegioaren eskuko ezartzen ditu. Departamenduaren diru laguntzak bildu nahi baditu, kirol muntaduren erabiltzeko hitzarmen bat izenpetu behar da.

Badu urteak Errobi kolegioko ikasleak urte osoan zabalik den Landagoieneko igerilekura joaten direla. Orain, maiatzean, ekainean, irailean eta urrian, Kanboko igerilekura joan nahi dute. Larresoroko eskolak ere galde bera luzatu du.

Nahitaezko ikasgaiak direnez eta seigarreneko eta bosgarreneko ikasle guzietan igeri egiten ikasi behar dutenez, Pirinio Atlantikoetako departamenduak kirol muntadurak bermatu behar lituzke. Horregatik, Akitaniako eskualdeak lizeoekin egiten duen gisan, Pirinio Atlantikoetako departamenduak herriekin hitzarmenak izenpetzen ditu.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

6 – Arnaga parkean segurtasun neurriak hartzea.

Aipagai hau eta 2017an egin beharreko obren egitaraua laburbiltzen duen ohar bat errezibitu dutela oroitarazten die Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei. Arnaga parkean bisitariak berme bat izatea da segurtasun neurriak hartzearen xede nagusia. Izan ere, batzuetan, zuhaitz zaharrak lanjerosak izan daitezke. Haize burrunben ondorioz, zoritxarrez, adar bat ibilgailu edo pertsona baten gainera eroriko balitz, Frantziako estatuak eta Pirinio Atlantikoetako departamenduak %6ko heinean diruz lagundutako hitzarmenari esker, Kanboko herriak parkea ontsa zaindu duela frogatzen ahal luke.

Badu urteak Forêt Conseils enpresako Perrin jauna Arnaga parkearen obralaria dela.

Aurkeztutako dokumentuetan hutsak badirela ohartarazten du Aïçaguerre andereak. Laburbiltzeko, oharrean, 2016ko azaroaren 30eko Herriko kontseiluan hartutako erabakiaren arabera, 2016an egin obrak zergarik gabeko 16 523 euroko balioa dute. Baina, erabakia 2015eko azaroaren 30ean hartua izan zen, eta ez 2016an.

Forêt Conseils enpresak egin Arnaga parkearen zuhaitzen inguruan segurtasun neurriak hartzeko obren egoera-taulan, adar nagusien arintzeari buruzko lerroan, burutu beharreko ekintzak 23 dira; 2016an burutu ekintzak 10 izan ziren, eta, ondorioz, 13 ekintza egitekoak dira oraino, eta ez 15, adierazi bezala. Abenkak kentzeari buruzko lerroan akats bera errepikatu da, egin beharreko lan bakarria gelditzen da, eta ez 9, adierari bezala.

Kalkuluetan eta eskatutako zenbatekoetan hutsegiteak badira.

Taula hau egin duen Perrin jaunari hutsegiteak seinalatuko zaizkiola ihardesten dio Auzapez jaunak.

2016 urtean aurreikusitako segurtasun neurrien hartzeko obrak ez direla burutu ohartzen da Aïçaguerre anderea. Izan ere, orotara 52 ekintza burutu behar ziren, eta, 18 bakarrik burutu dira. Taula honetan, aurrekontu faltagatik, lanak 2017ra gibelatuak izan direla zehazten da. Segurtasunari dagokionez, aurrekontua plantan ezarri behar litzatekela uste du. Kasu honetan, bereziki, gerorako utzi lanek 6 800 euroko balioa dutelarik. Segurtasuna aipatzen denean, lehentasunaz mintzo gara, eta horrek ez du preziorik.

Kanboko herriarentzat ere segurtasuna arras garrantzitsua dela ihardesten dio Auzapez jaunak. Egitasmo horretan engaiaturik, hori erakusten du. Hastapeneko hitzarmena hiru urtekoa zen, 2014tik 2016ra. Lanen burutzeko, hitzarmena luzarazi behar da. Hala, zergarik gabeko 20 874,70 euroko balioa duen egitarau hori onartzeko eta Arnaga parkean segurtasun neurriei lotutako lanak bururatzeko erabaki bat hartzea komeni da.

Hautetsi batzuen lasaitzeko, badu hamarkadak Arnaga parkea Kanboko herriaren lehentasuna dela gehitzen du Zerbitzuetako zuzendari nagusiak. Segurtasun neurriak hartzeko obrak 2011 urtean hasi ziren. 2011ren eta 2016en artean, segurtasun neurriei loturik, 183 000 euro gastatu ditu Kanboko herriak.

« Auprès de mon arbre » sozietatearekin egin kontratuko 1. gehigarria ez dela eratzikia izan seinalatzen du Bacardatz jaunak. Non ote den galdegiten du.

Frantziako estatuaren zerbitzuek onetsitako enpresa bat dela ihardesten dio Auzapez jaunak.

Kontsulta bat egin zela gehitzen du Zerbitzuetako zuzendari nagusiak. Hiru enpresek erantzun zuten orduan, tartean tokiko bi enpresek. Merkatua eskuratu zuen enpresa ez zen tokiko enpresa bat izan.

Kanboko herriak konkurrentzia arauak aplikatu zituela zehazten du Auzapez jaunak.

Obra horietarik jalgi egurra saldua ote den galdegiten du Etchelecu jaunak.

Baietz ihardesten dio Auzapez jaunak. Egurra erosteko xedea duten pertsonak zerbitzu teknikoetara jin behar dira eta egurra multzoka saldua da.

Diru irabazi horiek segurtasun neurriak hartzeko lanen ondorio direla gehitzen du. Egur galdarak elikatzeke zur plakatxoak erosten dituela zehazten du.

Kanboko herriak lehenik kanboarrei pentsatzen duela eta urtero egur ezteraren prezioari buruzko erabakia hartzen duela ihardesten dio Auzapez jaunak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

7 – Hirigintza dokumentua (HTP) : eskumena herriak atxikitzea.

Behin baino gehiagotan, eta, Hautetsien kontseiluko biltzar orokorra Kanbon iragan zelarik bereziki, Pirinio Atlantikoetako prefetak « Berdintasuna eta Hiritartasuna » lege proiektuan herrien %25ak eskumena eskualdaketaren aurka egiteko aukera berriz izanen zela adierazi zuela oroitarazten du Auzapez jaunak. Hala, hHTP (herriarteko Hirigintza Tokiko Planoa) baterantz joan nahi ez duten herriek, 2022 arte, gutienez, beren herriko HTP atxikitzen ahal lukete. Biltzar horretan, Espagnac andere senatariak berri hori konfirmatzen zuen gobernuaren e-mail bat erakutsi zigun, denei. Denek estatuko ordezkariak adierazten zutena sinetsi genuen.

Baina, « Berdintasuna eta Hiritartasuna » lege proiektu hau oraindik ere eztabaidatzen ari direla egiaztatu da. Parlamentuak bozka bidez gobernuari lege testua bide horretatik aldatzeko ahalmena emateko lege xedapena bazter utzia izan da. Hala ere, ehun herri baino gehiagorekin ostatuak diren HELEPen kasuan, elkargoaren barneko hHTP bat izatea, hau da, lurraldea eremuka zatitzea aurreikusia da. Gidaritza batzordearen biltzarretan, ehun eta berrogeita hemezortzi herri biltzen dituen hHTP baten osatzea aski zaila izanen zela behin baino gehiagotan oroitarazi du Jean-René Etchegaray jaunak.

Hala, legeari salbuespena egiteko norabidea hartzen ari da botere legegilea. Elkargoaren barneko hHTP bat onartuko luke orduan. Lurralde ttipiagoak estaliko lituzke.

Gidaritza batzordean hirigintza arloko arduradun erreferentea eta Arbonako auzapeza den Marie-José Mialocq andereak beste auzapez guziei e-mail bat igorri die. 2016ko abenduaren 31 aitzin, HTP, hirigintza dokumentu eta herriko karta arloko eskumenaren eskualdaketa errefusatzeko, printzipiozko erabaki baten hartzea aholkatzen die. Izan ere, Kanboko herriak bezala, beste herri batzuek ere HTPren ikerketan eta Grenelle legearen arabera araberakotasunean urratsak eginak dituzte. Herriek egin lan guziei buruzko erabakiak Herriko kontseiluak hartzea zentzuzkoa da. Hala gertatuko ez balitz, Herriko Etxeak HTPren aldaketaren aginduak segitu beharko lituzkete, baina, bukaerako erabakia ez litzateke gehiago Kanboko herriarena izanen, baizik eta Euskal Elkargoko kontseiluarena. Errobi Herri Elkargoko azkeneko Elkargoko kontseiluan, auzapez guziak erabakia hartzeko prest agertu zirela zehazten du Auzapez jaunak. Batzuek hala egina dute. Besteek laster eginen dute. Ardura, hHTPak herrietako HTPak gehituz egiten direla gehitzen du. Hirigintzari lotu gaiak herriari dagozkion gaiak direla eta ondorioz herriaren eskumena izaten segitu behar dutela uste du. Herriko Etxeak herriei aplikatzen zaizkien LAEri eta beste legeei obeditu behar die, naski. Herriko Etxeei hirigintzari lotu eskumena ere kentzen baldin bazaie, geroan, zer gauza geldituko da herrien esku ? Sinbolo kontu, Herriko kontseilu batek herrian zer egin nahi duen adieraztea eta

erabakitzea gauza ederra dela uste du. AGIPen bitartez eta araudiaren, zonakatzearen eta HTPan aurkitzen diren beste elementuen bitartez, Herriko Etxe batek xede horretara heltzeko legeak zein izan behar duten finkatzea gauza polita dela deritzo.

Oposizioko hautetsi taldearen izenean, dudan egon direla gehitzen du Hiriart-Urruty andereak. Alde batetik, HTPren berrikusteari buruz, gehiengoan den hautetsi taldeak hartu norabideekin ados ez direla zehazten du. Bestetik, HELEPEkin, lurraldearen antolaketaarako batzordean erabakiko diren norabideak zein izanen diren ez dakitela adierazten du. Funtzionamendua plantan ezartzen ari dira, gauzak ez dira argi. Horregatik, oposizioko hautetsiek abstenitzea deliberatu dute.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Gehiengoan onartua. Abstenitu direnak : Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna.

Eztabaida honetatik aparte, Michelena jaunak galdera bat pausatzen du. Iduriz, eskumen baten eskualdaketa gertatzen delarik, Herriko Etxeak eskumena osoki galtzen duela adierazten du Auzapez jaunak. Baina, hark ez du halakorik ulertu. Haren ustez, Herriko Etxeak estatuarekin batera eskumen orokorra deitzen dena atxikitzen du. Herri Elkargoari eman «kultura» eskumenaren eskualdaketa adibidea aipatzen du. Eskualdaketa gertaturik ere, Herriko Etxeak kultura arloan aktibitateak eta ekimenak bultzatzen ahal ditu, trabarik gabe. Herriko Etxeak eskumen batzuk galduz gero ere, ekintza osagarriak plantan ezartzeko «nagusi» izaten segitzen du.

Haren errana ez dela arras egia ihardesten dio Auzapez jaunak. Suple egiteko, Akitaniako eskualdearendako eta Pirinio Atlantikoetako departamenduarendako kendua izan den baina Herriko Etxearendako atxikia izan den eskumenen klausula orokorrari dagokionez, lege testu hau gabe ere, Herriko Etxeak eskumena atxik dezakeela adierazten du. Aldiz, legeak eskumena beste elkargo baten esku uzten duelarik, Herriko Etxeak ez dezake eskumena hartu. Argiki errateko, eraikitze baimenen inguruko erabakiak ehun eta berrogeita hemezortzi herri biltzen dituen Euskal Elkargoak hartuko ditu. Funtsean, lurraldean aginduen banaketa eginen da, baina, eraikitze baimena elkargoko Lehendakariak izenpetuko du, ez herriko Auzapezak. hHTPrentzat Elkargoko kontseiluak hartuko ditu erabakiak, ez Herriko kontseiluak. Azken horrek bere iritzia baizik ez du emanen.

«Kultura» eskumenaren eskualdaketa adibideari dagokionez, hala da bai, NOTRe legeak eskualdeari, departamenduari edo herriko eta herriarteko blokeari eskumenak eman dizkie, baina, partekatutakoak deitu eskumenen aldetik salbuespenak badira. 2015eko abuztuaren 7ko NOTRe legeak, turismoaren, kirolaren, hizkuntza politikaren, kulturaren arloan, hiru mailek, hau da, eskualdeak, departamenduak eta herri blokeek eskumena izatea aurreikusten du. Horregatik, euskararen eta euskal kulturaren arloan, elkargoaren eskumena ongi zehaztearen beharra agertzen da. Gaizki zehaztua balitz, Herriko Etxeei horren eskumena kendua izanen litzaieke. Hortaz, arlo batzuetan Herriko Etxeek beren eskumenak atxiki ahal izan ditzaten, elkargoko eskumenen nondik norakoak laster zehaztu beharko dira. Elkargoaren abantailen zehazteak lan hori ahalbidetzen ahalko du.

8 – Bestelako aipagaiak.

- 2017ko urtarrilaren 8an, igandearekin, 11:00etan, agiantza zeremonia iraganen dela oroitarazten du Auzapez jaunak. Egun, 15:51etan, e-mail bat helarazi dion Hiriart-Urruty andereari hitza uzten dio.
- Joan den astean, Luhuson iragan ziren gertakari latzak gogora ekartzen digu Hiriart-Urruty andereak. Herriko kontseilu anitzek Frantziako gobernuari helarazi zaion mozio baten alde

bozkatu dute; seiehun hautetsi baino gehiagok mozioa izenpetu dute. Mozio hori aurkezteko xedea du, elkarrekin ahal bada, eta Kanboko Herriko kontseiluak bozka dezan galdegiten du. Hiriart-Urruty andereak mozioa irakurtzen du :

« Bost pertsona izan ziren atxilotuak abenduaren 16an, ETAREN armategiaren parte bat neutralizatzen ari zirela.

Idatzi honen hautetsi izenpetzaileek jakin dute, operazio hau, 2011n Aieten abiatu bidearen segida zela eta espainiar eta frantziar estatuen inplikazio faltari aurre egiteko operazioa zela. Honela, jendarte zibilaren izenean berengain hartu nahi zuten ETA erakundearen armen desegitea.

Guk, Euskal Herriko sentsibilitate politiko guztietako hautetsiok, atxiloketa hauengandik hunkiak sentitzen gara, pertsonalitate ezagunak baitira eta denek baitakigu bakearen aldeko beren engaiamendua ukaezina dela. Hori azpimarratu nahi dugu.

Euskal Herriarentzat bortizkeriarik gabeko etorkizun demokratiko bat nahi baitugu, Beharrezkoa iruditzen baitzaigu presoen egoera eta biktima guztien sufrimenduak kontutan hartzea, Konbentzimendu osoa baitugu desarma berehala martxan ezarri behar dela, jendarte zibila ez dadin behartua sentitu arartekari izatera, Luhuson gertatu den bezala.

Guk, Euskal Herriko hautetsiok, frantziar eta espainiar estatuei eskatzen diegu desarme prozesuan eta gatazkaren konponbidean inplika daitezen. »

Herriko kontseiluak bi mozio jaso dituela ihardesten dio Auzapez jaunak. Abenduaren 20an, asteartean, 08:00ak aitzin izenpetu beharra zen testu bat, bost pertsona horiek berehala askatzea galdegiten zuena, pertsona horiei buruzko segurtamen guziak adieraziz. Gauzak honela, pertsona horiek ez ziren behin-behineko atxilotu behar. Testu hau izenpetu duela azaltzen du Auzapez jaunak. Goizean berean, Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikatan adierazpen bat egin duela azaltzen du. Beste hautetsi anitz bezala, Bake Bidearengandik jaso duen bigarren testua ere izenpetu du. Testu hau abenduaren 22a osteguna aitzin igorri beharra zen.

Auzapez jaunak testu hau denen esku ezartzea proposatzen du. Hala, jadanik egin ez dutenek eta izenpetu nahi dutenek, Herriko Etxean izenpetzen ahalko dute edo bake.bidea@gmail.com helbide elektronikora Bake Bideari idatziz jakinarazten ahalko diote.

Berehala izenpetzeko gisan dokumentua pasarazten ahal ote duen galdegiten du Lespade andereak.

Auzapez jaunak ezetz ihardesten dio. Horretaz axola direnek dokumentua izenpetzeko urratsa egin behar dutela uste du.

Herri Elkargoan, hautetsiek izenpetzeko orrian beren adostasuna adierazi dutela seinalatzen du Hiriart-Urruty andereak.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluaren bilkuraren ondotik egitea proposatzen du.

- Duela egun batzuk, Zesar zelaiko auzoan, badu bi urte eraikitzen ari diren etxe batean obra lanak egin dituen hondeamakina bat ikusteaz harritu da Bacardatz jauna. Alta, auzo horretako lanak bukatuak izan ziren eta errepidea berriz egina izan zen. Iduriz, etxe horren sare-loturak ahantziak izan ziren. Hiru hilabete baizik ez dituen bide estalian kalteak eragitea damugarri da. Duela bi urte eraikitzen ari diren etxe hori ahantzi izana harrigarria iruditzen zaio. Auzo honetan, berriz ere, « huts egite » bat gertatu da. Auzoetan obra lanak hasi aitzin, eraikitzeko baimenei buruzko galdeak egin behar lirateke.

Orduan, bi urteren buruan etxe baten eraikuntza bukatzea itxoin eta errepede estaliak hamar urtez andeatzen utzi behar lirakeela ihardesten dio Auzapez jaunak, pertsona horiek etxearen bukatzeko denbora gogotik ukan dezaten. Halako egoerak ezin dira orokortu. Devèze jauna ez dela lan horien jakinean zehazten du. Magis jauna hor ez denez, erran dezakeen gauza bakarra da hobe litzatekela halako galderak bilkura saioa hasi baino 24 edo 48 oren lehenago pausatzea, barne araudiak aurreikusten duen bezala. Bacardatz jaunak hala egin izan balu, Auzapez jaunak Zerbitzuetako zuzendari nagusiari galdera pausatuko zion, eta, ondorioz, Bacardatz jaunari erantzun zehatzagoa emanen zion.

Lan horietaz batere berririk ez duela baieztatzen du Devèze jaunak. Bacardatz jaunaren iritzi bera du.

Herritar berri horiek ere auzoko beste herritarrek pagatutako gastuetan parte hartuko dutela espero du Bacardatz jaunak.

Erantzun zehatza emateko gisan, berriz ere galdera horiek lehenago pausatzeko galdegiten dio Auzapez jaunak.

- Auzoetan, aurtan, aitzineko urteetan ez bezala, izai argiturik izan ez dela ohartarazten du Bacardatz jaunak. Zergatik hori?

Aitzineko urteetan egin oharraren ondorioz erabakia hartu zela ihardesten dio Jogleux andreak: gero eta gehiago, apaindutako izaiak ebatsiak ziren. Biztanleen erreakzioak ikustea interesgarria da. Egungo egunean, erreakzio guti izan da. Menturaz, aurtengo erabakia heldu den urtean berriz eztabaidatuko da.

Herriko Etxearen sosa ontsa kudeatzea dela gehitzen du Auzapez jaunak. Izan ere, ezin da diru publikoaren ordezkari diren ondasunen ebastea onartu.

- Herriko aldizkaria zertan ote den galdegiten du Bacardatz jaunak.

Aste honetan banatuko dela ihardesten dio Auzapez jaunak. Oposizioko taldearen testua ezagutzean, ez du plazerrik sentituko. Izan ere, gogoz ezagutzen duela uste du. Baina, gehiengoan den hautetsi taldearen idazkia atsegin handiz deskubrituko duela erraten dio.

Ostegunaz geroztik, fitxategia inprimatzailearen eskuetan dela gehitzen du Lassus jaunak. Usaiako epeak segituz gero, fitxategia lau egun barne inprimaturik, abenduaren bukaera aitzineko banaketa epea beteko da. Egoera hori aurreikusten zuen eta lehenago onartua izan den bilkura agiria baieztatzen du.

Bilkura agirian herriko aldizkaria abenduaren 19aren eta 25aren artean banatuko zela idatzia dela zehazten du Bacardatz jaunak.

Bilkura agirian herriko aldizkaria abenduaren 19aren eta 25aren artean banatzea programatua zela idatzia dela ihardesten dio Lassus jaunak. Baina, gibelamenduak aurreikusten zituen ere. Eginahalak egin eta 2016ko abendua bururatu aitzin banaketa egina izanen zela gehitzen du.

20:00etan, Auzapez jaunak biltzar osoari urte hondarreko besta onak desiratzen dizkio eta Herriko kontseiluaren bilkurari bururapena ematea erabakitzen du.